

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

118.000 euro baino gehiagorekin finantzatu dituzte erantzukizun sozialeko proiektuak Nafarroako enpresa eta entitateetan

Gizarte, ingurumen eta ekonomia arloekin zerikusia duten esperientzia pilotuak dira

Asteartea, 2017.eko abuztuak 8

Garapen Ekonomikorako Departamentuak 118.624 euroko

[diru-laguntza](#) emango du aurten erantzukizun sozialeko proiektuetarako Nafarroako zazpi enpresa eta entitateetan. Helburua haien lehiakortasuna, iraunkortasuna, gardentasuna eta gobernu ona hobetzea izango da.

Esperientzia guztiak pilotuak izango dira eta gizarte, ingurumen eta ekonomia arloekin lotuta daude. Lau elkartek edo fundaziok eta hiru enpresak garatuko dituzte.

Lehenengoan artean daude Laseme (Lizarreko Merindadeko Enpresen Elkarte), 20.000 euroko laguntza izango duena ETEekin barneko komunikazioa hobetzeko, lurraldeko beste enpresa-elkarte batzuekin lankidetzan, hala nola, AER, Sakana eta AEZMNA; ECODES (Ekologia eta Garapena Fundazioa), 20.000 euroekin Bcorp metodologiarekin diagnostiko bat egiteko zortzi enpresetan; AEDIPE (Pertsonen Zuzendaritzako eta Garapeneko Espainiako Elkarte), 20.000 euroekin, bazkideen artean enpresa-kudeaketaren kultura berriaren egoera aztertzeke; eta AIN (Nafarroako Industriaren Elkarte), 12.700 euroekin, bost enpresetan hornidura-katearen iraunkortasuna aztertzeke.

Bestalde, hauek dira diruz lagundutako enpresak: Gure Sustraiak, S.Coop., 20.000 euroekin, kudeaketa aurreratu bat integratzeko; Florette Ibérica, S.L., 20.000 euroekin, gutun etikoa egiteko, arazo muskuloeskeletikoak lantzeko eta lantoki onaren ziurtagiria lortzeko; eta Coval Consultores, 5.924 euroekin, enpresen erantzukizun sozialean joera berriak hedatzen dituzten foroak antolatzeke.